

UDA BAT MUGIKORRIK GABE

Ikastolako azken eguna zen eta nire lagun denak oporretara nora joango ziren hitz egiten zeuden. Markel Almeriara joango zen, Maddi Frantziara eta beste denak herriko hondartzan geldituko ziren. Ikastolako txirrina jo zuen eta poz-pozik etxera joan nintzen, pentsatzen oporretara nora joango nintzen.

Etxera iristerakoan, gurasoei oporretan nora joango ginen galdetu nien eta aiton-amonen herrira joango ginela esan zidaten. Ezin nuen sinetsi, nire lagun denak hondartzara, Almeriara eta Frantziara joango ziren eta ni aiton-amonen herrira. Haserre, nire logelara joan nintzen eta mugikorra atera nuen. Sare sozialetan sartu nintzen eta igotako azken argazkiak zenbat “like” zuen ikusi nuen. Bat batean nire aita sartu zen eta mugikorrarekin ikustean eskuetatik kendu zidan:

- Egun osoa mugikorrarekin pasatzen duzu -esan zidan.
- Hori ez da egia -esan nion.
- Ezin duzu mugikorrik gabe bizi -jarraitu zuen berak.
- Gezurra! - oihukatu nion.
- Niri horrela ez hitz egin -agindu zidan.
- Utzi bakean! -esan nion
- Mugikorrik gabe pasatuko duzu uda osoa, horrela mugikorrik gabe bizitzen ikasiko duzu -esan zidan.

Nire mugikorrarekin logelatik irten zen.

Izugarrizko haserrea nuen, nire logelako kuxina lurrera bota, apurtu eta pentsatzen hasi nintzen.

Uda hau nire bizitzako okerreana izango zela uste nuen. Gurasoek esan zidatenean mugikorra kenduko zidatela eta aiton-amonen herrira bidaliko nindutela, haserre ikaragarria hartu nuen. Uda hau zigor bat izango zela pentsatzen nuen. Lagunak hondartzara joango ziren, sare sozialetan argazkiak igoko zituzten, eta ni berriz,

mendien artean galdutako herri batean, seinalerik gabe. Aspertuta hilko nintzela uste nuen.

Lehen eguna oso gogorra izan zen. Goizean esnatu nintzen eta ohituraz mugikorra bilatu nuen, baina ez zegoen. Isiltasuna zegoen, gehiegizkoa iruditzen zitzaidan. Kalean jende gutxi zegoen, eta dena aspergarria zen.

Baina egunek aurrera egin ahala, dena aldatu egin zen. Orain ez zitzaidan dena hain aspergarria iruditzen. Goizetan, aitonarekin mendira joaten nintzen, eta berak herriko istorio zaharrak kontatzen zizkidan. Aitonak ez zuen pantailarik behar mundua ikusteko; berak zuhaitzen izenak eta haizearen norabidea ezagutzen zituen. Pixkanaka, nire begiek ere pantailatik kanpo begiratzen ikasi zuten. Arratsaldetan, plazan beste gazte batzuekin gelditzen nintzen. Hasieran lotsa ematen zidan haiekin hitz egiteak, ez nuen jakiten zer esan mugikorrik gabe ez nengoelako ohituta.

Egunak pasatu ziren eta lagun gehiago egin nuen. Egun batean, Aimar, nire lagunaren urtebetetzea izan zen eta bere etxera gonbidatu ninduen. Oso pozik jarri nintzen gonbidatu ninduenean, eta irrika handiz joango nintzela esan nion. Lagunekin plazan gelditu ginen eta Aimarren etxera joan ginen. Oso ondo pasatu genuen eta lagun berriak egin nituen.

Pixkanaka elkarrekin gauzak egiten hasi ginen: bizikletan ibili, errekan bainatu, mendira igo... Barre asko egin genuen, eta konturatu nintzen denbora azkarrago pasatzen zela mugikorra faltan botatzen ez nuenean.

Gauetan, zerura begiratzen genuen. Izarrak ikaragarriak ziren, hirian inoiz ikusten ez nituen modukoak. Momentu horietan lasai sentitzen nintzen, burua hutsik, presiorik gabe. Ez nuen pentsatzen nork idatzi zidan edo zenbat “like” nituen. Ez zitzaidan axola, ez nuelako mugikorra faltan botatzen.

Uda amaitzean, gurasoek mugikorra itzuli zidaten. Pozik jarri nintzen, noski, baina zerbait arraroa sentitu nuen. Mugikorra piztu nuenean, ehunka mezu nituen, baina konturatu nintzen garrantzitsuenak ez zirela hantxe zeudenak, uda hartan bizi

izandako barreak eta errekan hartutako bainuak baizik. Jada ez nuen lehen bezainbeste behar. Lagunak aurrez aurre ezagutzen direla ikasi nuen, eta benetako momentuak ez direla pantaila batean gordetzen. Garrantzitsuena lagunekin ondo pasatzea dela eta mugikorraren erruz lagun gutxiago egiten duzula konturatu nintzen.

Ikastolara iritsi nintzenean lagun denak nolako ondo pasatu zuten oporretan hitz egiten zeuden, zer argazki igo zuten, zenbat “like” zituzten... Hasieran jeloskor jarri nintzen, niri ere gustatuko zitzaidalako argazkiak igotzea, baina gero gogoratu nintzen mugikorrik gabe hobeto pasa nuela.

Orain, batzuetan, nahita itzaltzen dut mugikorra. Eta orduan, uda hartako isiltasuna gogoratzen dut.